

# OLERKIAK

## AURKEZPENA

Olerkigintzaren estratan  
sartu berria nauzue.  
Zeozer paratu nahiak nakar  
izkiriazaleen batzarrera,  
zeozer esan gurak  
ausardia damait gaur  
nahiz eta eskuak  
dardarra dagidan.  
Jakin badakit  
eskein diezazuekedanak  
apika  
asekaitz  
utziko zaituztela,  
diskurtso errena  
gerta dakizuekela  
baina bihotzak sinzeroki isuritakoa  
adiskideei aurkezteko hazturak  
narama zuengana. Hori da.

## AGURKA

Agurka deslotu nintzaion  
amaren sabel gozoari  
laberinto beiraztu huntara  
hel nendin.  
Eskolarakoan hasperenka  
ate nagia zirrivotik  
berari agur.  
Agurka haurtzaroari  
bizitzaren korrontez  
gizartera nendin.  
Artizarra itzali zen,  
gidari nuenari agur.  
Agurka mintzatu nintzaion  
urrundutako anaiari,  
negar zotinka  
hainbat ametsi agur.  
Atzean da iragana  
inertziak narama gaur  
behingoz galgatuko nauen  
lurrerantz,  
betirako agurra orduan.

## IA OROK

Gosea, asealdia  
nekea, atsedena  
eskasia, sobera  
malkoak, algarak  
MENPEKOTASUNA  
bistaratu zitzaizkidanean  
oldar bilakatu nintzen,  
ezintasunarekin gatazkan  
gudukatzen darraien  
oldar ezindua,  
piramidea errenkatu asmoz  
diharduen oldar adoleszentea.  
Ene ahuleziak iraul  
ahal baleza oraina  
geroan erretuko litzake  
ordaina  
ia orok desiratzen duen  
haina.

## KAXERNARI

Txapela erantzirik  
agurtzen haut  
Euskal Herri,  
mota xuriz  
mota gorritz  
berdetasunean bare.  
Arbasoen baratzari  
eusteagatik  
haukate  
makurturik,  
kimu ugalkor  
hizelako  
ondikotz loturik  
baina,  
hire odolaren garraz  
xuriaren eder argiz  
itxaropenaren uztaz  
irrintzia dantzugu gaur,  
gaur dantzugu irrintzia,  
dantzugu gaur irrintzia,  
.....!

JOXE JOAN UGALDE  
«MUNTTAR»